

## 8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren beharra eztabaida ezina da. .



Aurretik aipatu dugun bezala, gehienok ez gara lorategiko hondakin organikoak atera diezaiekegun etekinetaz ohartzen.

Horrek jendea birziklatzearen garrantziaz konturatzea erango du, eta gure proiektuan parte hartu nahi izango dute.

Gure enpresa lorategi pribatuak dituzten bezeroen hondakin begetalak bilduko ditu. Horretarako, guk sortutako aplikazio baten bidez, haien etxeetara helduko gara kamioi batzuetaz baliatuz.

Gurekin harremanetan jartzeko eta gure zerbitzuak eskatzeko aplikazioa baino ez da beharrezkoa izango. Lehenik eta behin erregistratu behar dira hainbat datu pertsonal emanaz (izen-abizenak, jaiotze data, helbidea...). Behin erregistratuta, bezeroak pantailan mapa bat izango du. Bertan bere etxea non dagoen edo non nahi dituen bere hondakin begetalak jasota izanda markatu eta azpikaldean dagoen kamioi baten irudia duen botoia sakatu eta zuzenean bere eskaera eginda egongo da. 24 orduko epean gure enpresaren langile bat haien hondakinak jasoko ditu.

Ondoren, bildutako soberakin begetalak konposta bihurtuko dugu eta nekazari-enpresei salduko diegu.